

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko uztailak 22 · 1237 zenbakia



PLAZATIK PLAZARA UDA SASOI BETEAN



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritzi
gure webgunera



• Kataraten kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

M^a MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.
Tel. 943 20 17 03
Fax. 943 70 20 49
m_ari_sanz@hotmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

zarelako para

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Tfnoa / emaila _____

NAN _____

Jaiotze data _____

K/K zenbakia _____

 **eta kitto!**
euskara elkartea

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkartea@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatutak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Abuztuan zehar Eibarko historia ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte Nerea Alustiza historialariak gidatuta. Iaz martxan jarri zen ekimena da eta bisitetako batean egoteko eta grabatzeko aukera izan genuen.

eta kitto!
euskarako elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Lisker

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Joan zen asteko alean, Jon Mikel Mujikaren kolaborazioan, azken parrafoa "jan genuen". Hona hemen bere osotasunean (beltzez, amaieran, jandako testua).

Hesiaren beste alde

Joan dira san ferminak, Euskal Herria munduan kokatzen duten jai unibertsalak. Denetik dute san ferminak, onetik eta txarretik. 8 egun eta 8 gau, parranda asko eta kultura gutxi, adiskidetasuna eta bortxaketak, txupinazoko ikurriña eta UPN. Eta nola ez, Iruñeako jaiak ardatz dituzten zazpi entziero.

Festek irauten duten bitartean, goizero goizero, 6 zezen eta 6 joaldunek Santo Domingoko eskortatik zezen plazarainoko bidea egiten dute. Beraien aurrean lasterka, ehundaka korrikalari, zezenen adarretara zein gehiago hurbildu, adardunen hauspoa norik gertuen sentitu. Ikuski-zun horri begira, hesiaren beste aldean, Iruñean bertan edo telebistaren aurrean, milaka, milioika. Ume beldurtu baten gisan, eskuekin euren aurpegia estaliz, baina hatzen arteko zirrikituetatik begira. Ikaraz, baina aldi berean korrikalarien ausardiaren inbidiatan.

Joan zen asteburuan, entziero ikuslearen sentsazio antzekoa izan nuen Amañako festetako kontzertuetan. Oholtzan, Tropa do Carallo. Evaristo Paramos handia buru duen musika taldea. Berarekin batera, 80. hamarkadatik gaurdaino punk rockaren munduan bizi izan diren beste lau musikari. Tranpaldotzian, hamarnaka punk zale, oihuka, saltoka, kantari, dantzan, bultzaka... dena ematen. Eta handik 50 bat metrotara, txosnako barrak ematen duen babesean, ni, nire kuadrilako beste dozena erdi kide, eta orain 20 urte San Andres pasealekuko taberna-zuloetan gertuko izaten nituen beste hogeitaz egun.

“Adinaren kontua izango da” nioen nere baitan, zer-beza katxi bat lau lagun artean konpartitzen genuen bitartean. Baina ez. Evaristo, bere 62 urteekin Cebada Gagoren zezen baten aurrean korrika ari zen. Eta gu, begira.

Urteak betetzea ez. Hesiaren beste aldera pasatzea, horixe da zahartzea.

Jon Mikel Mujika

Astean esanak



Garai denetan euskaraz sortuko duen jendea egotea da inportantea, eta ez duela 40 urteko kantutak euskaraz kantatuko duenik izatea. Erreka joango da betetzen edo ez, garaian garaiko euriaren arabera, baina erreka transmititu behar da, eta ez putzua. Garrantzitsua da kanpora ateratzea, baina euskal kulturaren indarrak inplosiboa izan behar du, ez esplosiboa: sakona eta ez zabala, ez dena neurtzen bakarrik zenbakitan. Akats ortografikoz, sintaktikoz eta bestelakoz betetako kantagintza jaso dugu, eta desafinatutako instrumentuekin grabatzea bezala da hori, inork bere buruari baimenduko ez liokeena.

ANARI, abeslaria

Emakumezkoak zientziara erakartzeko hamaika ekimen antolatzen diren honetan, zerbait egiten hasi beharko dugu gizonetzkoak letretara hurbiltzeko. Emakumezko idazleen labealdi berriak ikusten ditugun bezala, oso bakanak dira 35 urtetik beherako gizonetzko idazleak aurkitzea. Zer ezkututzen du gizon gazteek idazteko grinarik ez izatearen atzean? Idazlea batez ere irakurlea denez, uste dut bakanak direla gizon gazte letrazaurituak. Maialen Lujanbiok etxeko lanen banaketari buruz zioen bezala, `neskek etxeko lanen ardura utzi egin dute, zorionez; Neskek utzi egin dute eta mutilek ez dute hartu`.

BEÑAT MUGURUZA, irakaslea

Gaur egungo robotak labezomorroak bezain azkarrak dira. Labezomorroa basoan askatuz gero, berehala moldatuko zen. Robot militar bat estropezu egin eta erortzen bada, ezin da altxatu. Baina helduko da eguna arratoiak bezain azkarrak izango direna; gero, txakurrak bezain azkarrak. Eta mende honen amaierarako tximinoak bezalakoak; orduan arriskutsuak ere bihurtu daitezke. Ezberdinak direla jakingo dutelako! Txakurrak, esaterako, nahastuta daude, gu ere txakurrak garelako pentsatzen dute, alfa txakurra. Horregatik obeditzen gaituzte. Baina tximinoek badakite ez direla gizakiak. Une hori heltzen denerako, makinetako burmuinean txip-a ezarri beharko dugu.

MICHIO KAKU, fisikaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OI → Haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragia. Gaztelarazko 'encías'. Normalean pluralean erabiltzen da. "Oixak minduta darabiraz aspaldixan".

OIÑEZKORIK NAHI EZ ETA ZALDUNIK AGIRI EZ → Errefraua. Ustez txarragoak direnak baztertu eta onena hartu guran jarduteak askotan ezer gabe geratzea dakarrela esan nahi du.

Farmaziak

BARIXAKUA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 1
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
MARTITZENA 2
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUAZTENA 3
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 4
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 5
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 7
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 8
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
MARTITZENA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUAZTENA 10
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
EGUENA 11
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 12
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ZAPATUA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 16
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
EGUAZTENA 17
EGUNEZ Izpizua (Ibarkurutze, 7)
EGUENA 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 25
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 29
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 30
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
EGUAZTENA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 1
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 3
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 5
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 03 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Carmen Bolunburu Treviño**. 95 urte. 2022-07-09.
- **Angel Arrizabalaga Martinez**. 76 urte. 2022-07-13.
- **Placida Aierbe Uriarte**. 97 urte. 2022-07-13.
- **Flora Fernandez Rodriguez**. 100 urte. 2022-07-14.
- **Julia Olivenza Rodriguez**. 92 urte. 2022-07-16.
- **Julian Garcia Garcia**. 76 urte. 2022-07-17.
- **Ricardo Mauriz Areitioaurtena**. 69 urte. 2022-07-17.
- **Maria Jesus Sobrino Zabalo**. 90 urte. 2022-07-17.
- **J. Antonio Txabarri R. de Villalba**. 87 urte. 2022-07-18.
- **Agustin Zubia Gorrotxategi**. 82 urte. 2022-07-19.
- **Izaskun Bolinaga Rekaola**. 79 urte. 2022-07-19.

Jaiotakoak

- **Peru Unda Etxaniz**. 2022-07-06.
- **Ariana Maria Dumitru**. 2022-07-06.
- **Martina Castillo Ortega**. 2022-07-07.
- **Alhena Lacarra Fernandez**. 2022-07-11.
- **Ahmed Ofate Besarrate**. 2022-07-14.
- **Nile Zorrakin Elizburu**. 2022-07-15.
- **Gilen Larreategi Kruzelaegi**. 2022-07-16.



Idurre Iriondo

UDAKO ORDUTEGIAK

Udaletxea (Untzaga, 1)

• Udal Sailak

- Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
- Itxita: uztailak 25 eta 31, abuztuak 15 eta 16 eta irailak 6, 8 eta 9

PEGORA Bulegoa

- Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
- Telefono bidezko arreta (08:00-14:00)
- Itxita: uztailak 25 eta 31, abuztuak 15 eta 16 eta irailak 6, 8 eta 9

KIROL INSTALAZIOAK

Ipurua

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00 eta 16:00-20:00)
- Domekak/Jaiegunak (09:00-13:00)
- Itxita: abuztuaren 8tik 21era

Unbe

- Astelehenetik barixakura (10:00-20:00)
- Zapatuetan (09:00-13:00)
- Domekak/Jaiegunak (09:00-14:00)
- Itxita: uztailak 24 / abuztuak 7

Portalea (Bista Eder, 10)

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-20:30)

ABUZTUA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)

IRAILA:

- 1etik 7ra: astelehenetik barixakura (09:00-20:30)
- 12tik 30era: astelehenetik barixakura (09:00-21:30)
- Azken asteburuan: 24an (10:00-13:30 eta 16:00-21:00) eta 25ean (10:00-13:00 eta 16:00-21:00)

Juan San Martin Liburutegia

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30 eta 16:30-19:30)

ABUZTUA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)
- Itxita: 8tik 19ra

IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30 eta 16:00-20:30)

Euskara Zerbitzua

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)

IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)

Armagintzaren Museoa

UZTAILA:

- Martitzenetik barixakura (16:00-20:00)

ABUZTUA:

- Martitzenetik barixakura (10:00-13:30)

IRAILA:

- Martitzenetik barixakura (16:00-20:00)

Gizartekintza

UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)



Asteburuan berriz zabalduko dute San Agustin kalea eta martitzenean itxiko da

Errekatxuko etxebizitzaren promozio berriaren baitan, Bidebarrieta eta San Agustin kaleetan egiten ari diren lanak direla eta, San Agustin kalea trafikoarentzat itxita egongo da gaur arratsaldeko 19:00ak arte. Asteburuan berriz zabalduko dute, martitzen goizera arte. Egun horretan berriz itxiko dute kalea, uztailearen 29ko arratsaldeko 19:00ak arte. Bestalde, oinezkoak normaltasunez ibili ahalko dira San Agustin kalean zehar, eta autoak zamalanak burutzeko sartu ahalko dira.



Anbulatorioetan arreta-ordutegia zabalteko eskatu dio Bilduk Osakidetzari

Murrizketak bertan behera laga eta Eibarko ambulatorioetan arreta-ordutegiak handitzea eskatu du EH Bilduk. Diotenez, pandemiaren aurretik Toribio Etxebarria kaleko ambulatorioan eta Eibarko Ospitalekoan (Torrekuako ambulatorioan) arreta-ordutegia 20:00ak artekoa zen, "baina, pandemiaren aitzakiarekin, 2019az geroztik Osakidetzak murrizketak aplikatu eta 17:00ak arte murriztu zuen arreta-ordutegia". Gauzak horrela, murrizketa horiekin amaitzeko

eta Osasun Sistema Publikoa indartzeko mozioa erregistratu du Eibarko EH Bilduk

Ospitaleko 2. solairua itxita

Murrizketa horrekin batera, herritarren artean haserre handia eragin duen beste murrizketa bat ezarri du Osakidetzak. Oporretarako bere planifikazioaren ondorioz, Ospitaleko 2. pisua itxi egin dute eta, beraz, eibartar askok Mendarora edo Donostiara joan behar dute.



Hasi dira Bittor Sarasketako epaitegi zaharra moldatzeko lanak

Aste honetan hasi dira Bittor Sarasketa kaleko epaitegi zaharra moldatzeko lanak. Astelehen goizean kendu zuten aldamia eraikinetik eta epaitegiko perimetroa hesiekin inguratu dute. Hori dela eta, aparkatzeko toki batzuk kendu behar izan dituzte inguruan. Gazteentzat 19 apartamentu egingo dituzte bertan, alokairu erregimean Eibarren bizi diren gazteei aldi baterako eskaintzeko. Hiru

solairu izango ditu eraikinak eta solairu bakoitzean sei apartamentu egongo dira, haietako bost logela batekoak izango dira eta bat bi logelakoa. Logela bateko etxebizitzaren azalera 35 eta 39 metro kuadro bitartekoa izango da eta bi logelako etxebizitzek 58,5 metro kuadro izango dituzte. Etxebizitza egokitu bat ere egingo da eraikinaren etxabearen eta 57,62 metro kuadro izango ditu.



Beti Eibar-Eibar Forever elkarte eratu berria aurkeztu dute prentsurrekoan

Eguazten arratsaldean aurkeztu zuten Beti Eibar-Eibar Forever elkarte komunikabideen aurrean, Untzagako jubilatutuekin. Eibar K.E.-aren akziodun batzuen eskutik sortu berri den elkarteak argi laga nahi izan du beraien helburua ez dela klubaren kontseiluaren kontra egitea, taldearen eta klubaren onerako indarrak batzea baino. Horrekin batera, asmo nagusia “mundu osoan zehar sakabanatuta dauden akziodunei ahotsa ematea, beti ere legeak aurreikusten dituen bideak jarraituz” dela nabarmendu zuten, eta horretarako lanean hasi dira.

Besteak beste web orria sortu dute (eibarforever.org) eta bertan azaltzen dute elkarte eratu berri honen misioa: “Akziodunen Batzaren eta parte hartzea posible den edozein kudeaketa-forotan hitza ematea mundu osoan sakabanatuta dauden Eibarko Sozietateko 11.000 akziodun baino gehiagori. Horrela, bere garaian klubeko akzioak erositik egin zuten ahaleginari dagokio, 1. Mailarako igoeraren ondorioz eskatu zitzaigun kapital-gehikuntza. Beti ere Eibar elkartearen interes kolektiboarentzat onena dena

bilatuz, klubeko edozein pertsonak izan ditzakeen interes indibidualen aurka irmo borrokatuz eta klubeko kudeaketa organo arruntekiko balio erantsi diferentziala emanez”. Elkartearekin bat egiteko, nahikoa da webgunean dagoen formularioa betetzea edo info@betieibar.eus helbidera idaztea.

Esandakoaren arabera, Eibar K.E.-ko akziodunen bi herenak ez du batzarretan parte hartzen eta, hain zuzen ere, hori da aldatu nahi dutena: “Ahalik eta akziodun gehien parte hartzea ahalbidetu nahi dugu, horretarako bide berriak eskura ipinita”. Zenbat eta akziodun gehiago elkartera erakarri, beraien ahotsa ere ozenago entzungo dela pentsatzen dute, eta horregatik hasi dira beraien inguruko akziodunak elkartera erakartzeko lanean. Elkarte demokratikoa izango da: botu bat akziodun bakoitzeko, bakoitzaren akzio-kopuruari begiratzen ibili barik.

Elkarteko presidentea Mikel Porto da, idazkaria Ainhoa Ormaetxea, bokalak Tomas Azkue eta Aitor Muniozguren eta diruzaina Iñaxio Unanue.

Prestakuntza-ekintzetarako laguntza deialdi berria martxan

Udalak deialdi berria zabaldu du prestakuntza-ekintzak egiten ari diren langabetuei edo enplegua hobetzeko egoeran daudenei dirulaguntzak emateko. Pertsona bakoitzeko gehienez 500 euroko laguntza eman ahal izango da, prestakuntza-ekintzaren gastuak, beharrezko materialak eta/edo prestakuntza-zentrorako garraio-kostuak barne. Programak LHko erdi-mailako edo goi-mailako graduak egitea eta enplegarritasuna areagotzen duten ekintzak diruz laguntzen ditu, hala nola hizkuntza-ikastaro ofizialak edo gidabaimena lortzea. Eskerak aurkezteko epea atzo zabaldu eta urriaren 28an itxiko da. Aurrez aurre (Pegoran), elektronikoki (www.eibar.eus web orriaren bidez) edo administrazio publikoetako erregistroetan aurkeztu ahal izango dira.



Sare elkartearen Bizikleta Itzulia bihar Eibarren

Bihar ailegatuko da Eibarrera Sare elkartearen Bizikleta Itzulia, 11:30ean. Iparralde osoa blokeatuko dute Bake Bidea eta Bakearen Artisauek eta txirrindulariek ere Eibarren errepidearen blokeo sinbolikoa egingo dute. Untzagara joateko deia egin dute.



Jasangarritasun energetikoaren legeak dioena betetzeko eskaera

Eibarko Elkarrekin Podemos koalizioak mozioa aurkeztu du uztailako osoko bilkurarako. Mozio horretan, sei hilabeteko epean, 4/2019 jasangarritasun energetikoaren euskal legearen helburuak osorik betetzeko ekintza-planak egitea eskatu dio Udaleko gobernu taldeari. Plan horietan, proiektatutako neurriak, horietara bideratutako aurrekontua eta lege hori osorik betetzeko jarduera-egutegia jasotzea ere eskatuko dute.

Zehazki, mozioan eskatu dituzten plan horietan ezartzen diren helburuen irismenari eta planaren betetze-mailari buruzko informazioa herritarrei modu irekian, eta gutxienez urtean behin ematea eskatu dute koalizioko ordezkariak.

32. Toribio Echevarria Sariak banatu dituzte

Ventipen eta Robtrusion startuppek jaso dituzte sari nagusiak eguaztenezan Teknikerren banatu ziren Toribio Echevarria Sarien 32. edizioan. Ventipen startupak “Ideiak/proiektu enpresarialak” kategorian jaso du saria eta Robtrusion startupak “Enpresa Berria” kategorian. Enpresa biek osasunaren eta material berrien sektoreetan garatzen dute euren jarduera. Protagonista izan diren beste enpresak Trak Health

Solutions (Internazionalizazioan laguntzeko saria), Cycling Dynamic Trainers (Eibarko Udalaren “Especializazio Estrategikoa” saria) eta Wellk Software Solutions (Eibarko Udalaren “Eibarko Enpresa” sari berezia) dira. Eekintzazailza, enpresa, zientzia eta hezkuntza arloetako ordezkari ugari bildu zituen ekitaldiak eta modu berezian gogoratu zuten iaz hil zen Alex Bengoa Teknikerreko zuzendari nagusi izandakoa.

FUNEUSKADI
Erregio Auzoa

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO KREMATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Iñaki Isasmendi Irigoien
1. URTEURRENA (2021/07/27)

“Beti izango zara gure bihotzetan”
- ZURE FAMILIA -

Eibarko historia ezagutu abuztuan

Ikusi bideoa



lazko abuztuan hasitako bideari jarraituz, herriko historia zein izan den ezagutzeko ibilbidea prestatu dute abuzturako. Ibilaldi horietan Nerea Alustiza historialaria izango da bidelagun, eta bere ahotsetik, “modu atseginean eta entretenigarrian”, esan digunez, Eibarren gertatu diren pasarteen eta bitxikerien berri izango dute parte-hartzaileek.

Bisita gidatuak abuztuko martitzen eta eguenean egingo dira 18:30etik 20:00etara eta, salbuespen bezala, baita hilaren 14an eta 21ean ere (domekan) 11:00etatik 12:30era. “Aurten bisitek ordu erdi gehiago irauango dute, nahiko motz gelditzen zelako”, esan digu Nerea Alustizak. Bisitak Estaziño kalean hasiko dira eta, herriko zenbait kale zeharkatu ondoren, Untzagan izango dute amaiera.

Ibilbidea Estaziñoko tren-geltokian hasia ez da kasualitate hutsa. “Trena Eibarko arteria nagusia izan da herriaren historiako zati handi batean”, azaldu digu Nerea Alustizak. Geltokiak zuen indarrak azaltzen du Estaziño kalearen garrantzia eta horren erakusle dira bertan aurkitzen ziren Ariel Etxea (Arbitrios), Comercio Hotela, Kruzeta eta Aierbe etxeak eta gaur egun martxa betean jarraitzen duen kasinoa. “Kasinoa itzela da! Hor ez bada, gaur egun ia inon ezin dugu



ikusi inor billarrean jokatzen Eibarren”, diosku historialariak.

Ibarkurutzen geldialdia egin ondoren, Coliseo antzokiaren eta El Casco eraikinaren inguruko azalpenak emango ditu Alustizak eta, handik hurbil, Eibar irudi batean azaltzen duen panoramika ikusi ahal izango dute parte-hartzaileek. “Muzategi kalean Zapata tailerra zena, Merzedarien ikastetxea eta Jardinetako etxeak ikus daitezke, denak bata bestearen gainean jarrita, toki berean. Hori da Eibar”, azpimarratzen du historialariak.

Handik San Agustinera joko dute. “Demaseko historia du kaleak”, diosku Alustizak. “Batetik, Frankaniren inguruan jardungo dugu, pegora baten azpian zegoen tailerra. Eta bestetik, Polizia Nazionalaren egoitzari buruz. Hori ere pegora batean zegoen, lehenengo pisuan”, azaldu digu. “Eibarren barrik gertatzen da hori!”.

Bidebarrieta kalerantz joko dute gero eta Bar Cafe Larrañaga izango dute hizpide edo, hobeto esanda, Bar Kanposanto. “Tabernaren alboan Mugika ehorztetxea zegoen eta hilkutxak kanpoan jartzen zituzten. Beraz, jendeak zioen tabernak kanposantua zirudiela, eta horregatik deitzen zioten horrela”, Alustizak kontatu digunez.

Kale berean Julian Hotela zegoen eta istorio bitxia du atzean honek ere. “Julian Muñoa Elorriotik etorri zen zaldi eta karro banarekin. Bizia zen. Hemengo emakume batekin ezkondu zen, logelak alokatzen zituzten pertsona nagusi batzuei negozioa hartu zien eta zaldiarekin eta karroarekin tren geltokira




Argazkien bitartez herriak izan duen bilakaera irudikatu ahal izango da.

>>> Bisitak Estaziño kalean hasiko dira eta, herriko zenbait kale zeharkatu ondoren, Untzagan izango dute amaiera

joaten zen taxista lanak egitera, heltzen zirenak hotelera eramateko. Negozioa ondo joan zitzaien eta urte gutxitan sei taxi erosi eta gasolinera bat jarri zuen martxan. Gangsterren pelikuletako autoak ziren. Tamalez, Durangoko bonbardaketan hil zuten Julian”, dio historialariak.

Eibarko Bizikleta plazan egingo dute hurrengo geldialdia, Fermin Calbeton eta Txiriokale kaleen inguruan jarduteko. “Batetik, Ziriako Agirre medikuaren kontakizunak



Toribio Etxebarria, damaskinatua, Julian Hotela... gai ezberdinak landuko ditu Nerea Alustizak bisita gidatuetan.

eskainiko ditut. Besteak beste, aurreko mendeko 20. hamarkadan, zapatueta etortzen ziren prostitutei azterketa egiten zien gaixotasunen bat zuten ikusteko. Eta bestetik, Txiriokaleko Toribio Etxebarriari buruz jardungo dut”, esan digunez.

Ibilbideak Untzagan izango du amaiera eta udaletxea (“Gipuzkoako handiena”) eta II. Errepublikak izango ditu mintzagai bertan Alustizak.

Historia ezagutzeko modu atsegina

Iazko esperientzia oso positiboa izan zen eta eibartarrez gain, beste toki askotako jendeak hartu zuen parte bisita gidatuetan. “Eibartarrek euren herriko historia zehatzago ezagutu ahal izan zuten eta bisitariak Eibar moduko herri batek dituen historia eta bitxikerien berri izan zuten”, gogoratzen du Alustizak.

Alustizak kontatzen dituen istorioak oso aberatsak dira eta antzinarako argazkiez laguntzen da kontakia

>>> Nerea Alustizak Eibarko historiaren errepassoa egiten du herriko bitxikeriak kontatuz

>>> Bisita gidatuak abuztuko martitzen eta eguenetan egingo dira 18:30etik 20:00etara; eta baita 14an eta 21ean ere, 11:00etatik 12:30era

zuna egiteko eta parte-hartzaileek Eibar nolakoa zen jakiteko. Izan ere, Gerra Zibileko bonbardaketen ondoren toki asko suntsituta geratu ziren eta, bestela, zaila izaten da haiak irudikatzea.

Parte hartzeko

Bisiten prezioa 5 eurokoa izango da helduentzat, 2,5 eurokoa eibartar helduentzat eta 65 urtetik gorakoentzat, eta doakoak 12 urtetik beherakoentzat. NANA erakutsi beharko da bisitaren unean eta saioak euskaraz edo gaztelaniaz egingo dira, izena ematen dutenen arabera.

Bisitetan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurretiaz (bisita bakoitzaren bezperara arte egin ahaliko dute) 670 391 265 telefonora deituz, 11:00etatik 18:00etara, astelehenetik barixakura, edo eibarvisit@gmail.com posta-helbidera idatziz. Bisita bakoitzean gehienez 15 lagun onartuko dira.

Gure Zirkuaren magiaz gozatzeko aukera izango dugu abuztuan zehar

“Zirkua fantasiari atea zabaltzea da”. Ba al da zirkuaren definizio aproposagorik? Gure Zirkua osatzen dutenen berbak dira horiek eta, azken bost urteetan egin dutena ikusita, ez zaie arrazoirik falta. Zirkuaren magia Euskal Herriko txoko guztietara eraman dute, euskaraz, eta ezinezkoa egi bihurtzen jarraituko dute uda honetan ere.



Durangon, Amurrión, Lezaman eta Ispasterren egon ondoren, Gure Zirkua Gipuzkoa alde-ra joko du abuztuan, Oriora hain zuzen ere. Han egongo da hilaren 4tik 28ra, eguenetik domekara, 19:00etan, Oria ibaiaren ertzean zirkuaren magia zabaltzen. Ikuskizun bakoitzean 350 lagun inguru sartuko dira eta gurezirkua.eus webgunean erosi daitezke sarrerak.

Iker Galartza aktore eta pailazoa da Gure Zirkuaren alma materra eta Oriora iritsi berri harrapatu dugu telefonoaren beste aldean, beroari aurre eginez zirkua muntatzen hasteko asmoz. “Zirku-ikus-kizuna eskaintzen dugunok egiten dugu zirkuaren muntaia”, diosku Galartzak, baina publikoarekin sortzen den lotura hain da berezia, hainbat tokitan herritarrek muntaia egiten laguntzen diete-

la. “Publikoa alde izaten dugu eta dena ematen digute”, gehitzen du.

Lan astuna da, baina zirkua herri batera heltzean sortzen den giro berezia ikustean, lana gozamen bihurtzen da. “Batez ere herri txikitara joaten garenean zerbait berezia sortzen da, ez dutelako bestelako programazio kultural handirik”, esan digu Galartzak.

Ispasterren egindako egonaldia, adibidez, maitasun handiz gogoratzen du aktoreak. “Ispasterren hamabost egun besterik ez gara egon, baina nahikoak izan dira lagunak egiteko. Gainera, ikuskizuna egin ondoren bainua hartzea zoragarria izan zen”. Eta ez hori bakarrik. “Emakume batek esan zigun bakarrik bizi zela eta bere etxeko dutxak eskaini zizkigun bainua hartzeko. Bestetik, gutako bat gaixo jarri zen eta berehala deitu zioten medikuari. Herri

Informazio gehiago
Gure Zirkuaren webgunean:





Iker Galartza eta Joseba Usabiaga dira Gure Zirkuko protagonistetako bi. GURE ZIRKUA

txiki baten dena da gertukoa eta berezia. Egia da hiri handi batean zirkua errazago betetzen dela eta herri txikien kasuan hara eta hona ibili behar garela promozioa egiten, baina emaitza ona denean eta gauzak ondo irteten direla ikustean pozez zorutzen jartzen gara”, gehitzen du.

Bost urteko bidea

Gure Zirkuk orain dela bost urte hasi zuen bidea. “Bere sasoian Txirri, Mirri eta Txiribitonek Zirko Mundiala sortu zuten, baina horrelako zirku bat, euskaraz, bertakoa, herriz herri mugitzen dena eta hemengo artistekin, teknikariek eta abarrekin... ez zegoen horrelakorik”, azaldu digu Galartzak. Beraz, zirkoaren erromantizismoaz kutsatuta, zirkua sortzea okurritu zitzaion familia eta lagunekin: Gure Zirkua.

“Batez ere herri txikietara joaten garenean zerbait berezia sortzen da, ez dutelako bestelako programazio kultural handirik”

“Publikoa alde izaten dugu eta dena ematen digute”

Ametsa errealitate bihurtzea paxadaz hartu zuten, helburua ez zelako nolanhikoa. “Asko mugitu ginen, herrietako agintariak konbentzitzen ibili behar izan ginen eta kamioi bat erosteko erabakia hartzea ez zen erraza izan. Hau da, kamioi bat zirkurako erostea eta ez garraiorako. Ahalegin ekonomikoa egin behar izan genuen, baina poliki-poliki joan gara gauzak hobetzen (bizi-kalitatea, muntaia, segurtasuna...)”, esan digu Galartzak.

Hobekuntza horien erakusle da Gure Zirkuk azken aldian aurkeztu duen eszenografia berria. “Gure artean harreman sendoa dugu eta afa-losteetan-eta hainbat ideia sortzen zaizkigu. Horrela okurritu zitzaigun eszenografia aldatzea eta, funtzionatzen ez badu, aurrekora itzuliko gara”, diosku pailazoak lasai asko.

Gure Zirkuk dekoratu, sketch, saio eta proposamen berriak ditu.

“Badakizu ondo pasatu eta barre egingo duzula; udan gozatzeko plan egokia da Gure Zirkua ikustera joatea”



“Dena ezin da kolpetik egin, baina herriz herri goazela, poliki-poliki, gauza berriak eskaintzen ditugu”, Galartzaren berbetan. “Berritasun batzuek ez dute funtzionatzen, baina beste batzuk bai, eta zerbait txukuna irteten da hortik”.

‘Handia’ pelikulan ikusi ahal izan dugun Joseba Usabiaga da Gure Zirkuaren aurkezlea eta ikuskizun aberatsa ikusteko ateak irekitzen dizkigu. “Badakizu ondo pasatu eta barre egingo duzula”, diosku Galartzak. “Zuzeneko musika eskaintzen dugu, akrobaziak (airean eta lurrian), pailazoak, magia, malabarismoak, Houdini handiaren trukoak... Lan polita da, xehetasunez betea, eta jendeak baloratzen du”, aktorearen ustez.

Udako plan egokiak

Galartzaren ustez udan gozatzeko plan egokia da Gure Zirkua ikustera joatea (“Gipuzkoako jendea



Malabarak, zuzeneko musika, akrobaziak... ikuskizun betea eskaintzen du Gure Zirkua.

"Emitza ona denean, eta gauzak ondo irteten direla ikustean, pozez zorutzen jartzen gara"

etortzeaz gain, Bizkaia, Nafarroa eta beste hainbat tokitakoak ere gurekin izatea espero dugu”) eta honako proposamena egiten digu: “Kostaldera egunpasa egitera etorri zaitezketek, hondartzaz gozatu, aperitiboa hartu eta arratsaldean zirkura”.

Orioko egonaldia amaitu ondoren Nafarroa aldera joko du Gure Zirkua eta berarekin eramango du zirkuaren magia.

Gari-jotzeari heldu zioten beste behin Sosolan

Gari-jotzea izan zen aurreko asteko barixakuan gure herriko Sosola baserrian. Gaur egun ez da oso ohikoa garia ereitea eta Sosola baserria da bakarrenetakoa Gipuzkoan. Orain dela 12 bat urte ingurutik hona ari dira gari-uzta biltzen bertan. Gari-jotzea Eibarko Artxiboaren dokumentuetan islatzen da, ohikoa izaten baitzen baserriko errentariak errenta gari-anegekin ordaintzea. Aurtengoa sasoi ona izan da gariarentzat: "Guri ez, baina gariari beroak mesede egiten baitio".



Horregatik, hain zuzen ere, Sosola baserrikoek gari-jotzeak gure herrian izan duen garrantzia dakarkigu gogora. Etxaldean sasoi batean gari dezente hartzen zela jakinda, berriro gari-lanetan hastea otu zitzairen: alde batetik, etxeko garia erabiltzeak halako zer berezi bat ematen diolako egiten duten ogi ekologikoari eta, bestetik, lanik zaharrenetako bat erakusteko eta ezagutzera emateko modua delako; izan ere, uzta-biltzeko sasoiaren jendea auzolanera gonbidatzen baitute.

"2010ean edo, izango zen aspaldiko ohiturari heldu geniola", diosku Sosola baserriko Enrike Gisasolak. Bera eta Aizpea Izagirre bikotea izan ziren gari-jotzen oraingoan ere: "Arratsalde bateko kontua izan zen, ko-setxadora mini-mini baten laguntzarekin. Sekadora modukoa da, moztu, jo eta zakura garbi-garbi sartzea ahalbidetzen diguna".

Oraingoan, dena dela, saila txikiagoa izan da, "asmoa multiplikazioa izan delako". Proiektu berri batean sartuta daudelako Sosolakoak, Errezilgo beste bi baserriekin elkarlanean. "Badira bi urte multiplikatzeko arlo horretan sartu ginela. Antzinako barietateak errekuperatzea dago horren atzean, multiplikazio bideari jarraituta. Hurrengoetako gari-jotzeetan sail handiagoak erabiliko ditugu", dio Enrikek.



Enrike Gisasola aurreko barixakuan lur-sailean lanean. Beste orrialdean, goian, Aizpea Izagirre sailkatze-lanetan. SOSOLA

Gari mota zaharrekin proiektu berriari sartuta

Antzinako lau barietate mota landu dituzte Sosolakoek aurten eta, iaz erakundeetatik jasotako dirulaguntzari esker, Errezilgo beste bi baserrikoekin batera zazpi barietateeri ekin diete. Sosolakoek dioenez, "Gerra Zibilaren amaieran baserriz baserri jardun zuten gari barietateen bila eta Madrilen dagoen hazien bankuan gordeta egon dira 70 bat urtetan. Hortik aprobetxatu eta dugun ogi motarako zelan portatzen diren ikusi nahi dugu". Pandemia sasoiari hasi ziren hiru baserrikoek proba horrekin.

Madrilatik bidalitako 250 gramorekin hasi zuten bidea: "Kilo batek 10 kilo gari eman dezake; artoaren kasuan, kilo batekin 300 ateratzen dituzu". Gari mota desberdinak erosi eta nahasteko ohiturari jarraitzen diote, "etxekoa aurkitzea ere ez delako txarto egoten. Hemengo barietate zaharrekin zailagoa da lan egitea, handiagoa eta pisutsuagoa delako".

Intolerantziak direla-eta, jendeak gero eta arazo gehiagorekin topo egiten duen sasoi honetan, horren zergatia gure bizitza sisteman ez ote dagoen galdetzen dute Sosolakoek: "Ogia errazegi merkaturatzen da gaur egun eta horrek eragina izan dezake osasunean. Fermentazio luzeagoekin arazo gutxiago eta txikiagoak izango lirateke. Glutena liseritzeko arazoan aurrean, gari zaharrek eokintza prozesua zaildu -edo luzatu- dezakete, baina digeritza orduan baita abantailak eskaini ere".

Behin gari-jotzea eginda, "2-3 hilabeteko *reposoa* eman, errota pasatu eta ogia egin daiteke". Baina aurten ez dute horiekin ogia egingo: "Datorren urtean hasiko gara. Oraingoan ogi- eta okin-frogak egingo ditugu, udazkenean: protokolari jarraituz neurketak egin, ea harrotu den ikusi, azala eta zaporea aztertu, puntuatu eta kalifikazioa eman".

Gari-jotzea helburu pedagogikoarekin hasi zuten Sosolakoek, bezeroari erakutsi, auzolanean jardun eta festa txiki bat egiteko asmoarekin

Ogia, ardi gazta eta arkumea ekoizten dute, etxera eraman eta herriko dendetan saltzeaz gain

“Justu justuan ailegatu gara, baina errepidean gaude berriro”

JABI ZABALA • Lisker taldeko baxu-jotzailea



Eibarko Jeiki eta Zima taldeetan ibilitako musikariek sortu zuten Lisker taldea 70eko hamarkadan. Talde bi horiek bat egin zuten sasoi hartan urtero udan Lekeitioko hondartzan antolatzen zen Lekeitio Rock Jaialdian, eta egun hartan sortu zen folk-rock talde bat eratzeko ideia.

Jeikiko Ernesto Gomez (ahotsa eta gitarra akustikoa) eta Jabier Zabala (baxua) eta Zimako Julian Alberdi (gitarra elektrikoa) eta Josean Salado (bateria) batu ziren Liskerren, Jesus Gil (flauta) kide berriarekin batera. Jotzen hasi eta, berehala, Basauriko rock lehiaketa irabazi zuen taldeak eta, horri eskerrak, diskoa grabatzeko eskaintza egin zion Xoxoa diskoetxe sortu berriak. Liskerren sorreratik gaur arte, taldean jarraitzen duen bakarra Jabi Zabala baxu-jotzailea da, zalantza barik Lisker taldearen aurpegiarik ezagunena. Berarekin egon gara, aurtengo udan nondik nora ibiliko diren kontatzeko. **Azken bi urteak etxean sartuta egon eta gero, nolakoa ari da izaten plazetara buelta?**

Pozgarria. Egia esateko, justu justuan ailegatu gara, maiatzean oraindik ez genekielako talderik egongo zen ala ez. Lehenengo gitarristak taldea laga zuen eta berria bilatu behar izan genuen. Eta otsailean, berriz, azken urteotan gurekin aritu den bateria-jotzaileari lanerako aukera on bat irten zitzaion eta hark ere taldea laga zuen. Maiatzean sartuta eta gauzak horrela,

ezin genuen konpromisorik hartu, talderik izango genuen ala ez jakin barik. Azkenean lortu genuen bateria-jotzaile berri bat eta, ia entseatzeko denbora barik, horrela igo ginen berriz taula gainera.

Orduan, Sanjuanetarako prestatzeko denborarik ere ez zenuten izan ia...

Pare bat alditan entseatu eta listo, bateria-jotzaileak 75 abesti inguru ikasi behar izan zituen, pentsa! Baina oso pozik gaude jendearekin, oso ondo hartu gaituzte. Eta zer esanik ez Eibarko jendearekin, kristoren harrera egin ziguten eta. Eskerrak gazte jendeari, Untzaga plaza bete zutelako eta, gainera, hasieratik amaierara arte dantzan egon zirelako. Eta hori, pixka bat aurretik, Nele dantzakoen saioan, demaseko euri-zaparrada jausi zela! Hori eta gero, Gatiburen "Euritán dantzan" abestia jotzen dugun bakoitzean, gertatutakoa gogoratzen dugu.

Nolakoa izan da pandemia garaia? Jai barik, jotzeko aukera barik... Nola moldatu zarete?

Zailtasun askorekin eta, gainera, laguntzarik jaso barik. Taldeak maiatzean egiten du alta eta urrian,



berriz, baja ematen du. Baina, pandemia martxoan hasi zenez, oraindik alta eman gabe geunden eta, beraz, laguntzak eskatzeko aukerarik ere ez genuen izan. Egun batzuetan pentsatzen nuen agian lagatzeko garaia ailegatu zela, adina ere banuela, baina, oztopoak oztopo, berriro errepidean gaude eta pozik, gainera. **Sanjuanetan, Amañako jaietan, Agurainen eta hainbat tokitan jotzen aritu zarete. Nondik nora ibiliko zarete udan?**

Martxan horren berandu ipini eta gero, ezin gara kexatu, zazpi bat berbena lotu ditugu. Araba aldean asko jotzen dugu guk, asteburu honetan berriz ere Mendaron egongo gara. Ez dago gaizki, kontuan izanda maiatza aurretik ezin genuela konpromisorik hartu. Hala ere, herri txiki batzuetan zain eta dena egon dira, jo ahal izango genuela konfirmatu arte.

Nolako errepertorioa daukazu? Zeren arabera aukeratzan dituzue toki bakoitzean joko dituzuen abestiak?

Geurea oso errepertorio zabala da, denetarik daramagu. Batez ere Euskal Herriko talde ezagunen kantuak

jotzen ditugu, La Polla, Barricada eta horrelakoak, baita arrakasta lortu duten beste talde batzuen (Huntza, Gatibu, Berri Txarrak...) abestiak ere. Horrez gain, ezin dira falta dozena erdi euskal dantza klasiko, polka, fandango, zazpi jauziak... eta rantxerak eta betiko kantuak. Alde horretatik nahiko eklektikoak garela esan daiteke. Eta, aipatutakoez gain, gure "lokerixak" ere hor daude: "Follow the leader", "Saturday night", "La chica ye-ye" (azken hau geroz eta gutxiago)... Bestalde, umeendako kantu sorta bat ere badaukagu, eurei ere kasu egitea garrantzitsua da eta. Hemen ez horrenbeste, baina Araban ohitura handia egoten da arratsaldean pixka batean aritzeko, afaldu baino lehen, eta atsedendiairen ondoren berriz ere jotzen segitzeko, gaueko berbena luzatzeko. Horrelakoetarako "Pintxo Pintxo", "Euri tanta", "Astronauta" eta beste abesti ezagun batzuk eramaten ditugu.

Eta badago beti edo ia beti eskatzen dizueten kanturik? Amaieran normalean balada estiloko kantuak, denok elkarrekin batera kantatzeko modukoak eskatzen dituzte. Azken urteotan zoritxarrez oso ezaguna egin



“Geurea oso errepertorio zabala da, denetarik eramaten dugu, batez ere Euskal Herriko talde ezagunen kantuak”

“Amaieran balada estiloko abestiak, denek elkarrekin kantatzeko modukoak, eskatzen dizkigute gehienbat”

den "Altsasukoak" asko eskatzen digute, baita "Lau teilatu" ere. Eta gero, boladaka, modak egoten dira. Adibidez, azken aldi honetan gazte jendeak Melendi eskatzen digu eta ez dakigu zergatik, guretzat misterio bat da, berarekin ia gogoratu ere ez zirela egingo pentsatzen genuen eta. Azken urteotan asko entzun diren taldeenak ere eskatzen dizkigute, Huntza eta horrelako taldeenak, antzinako kantuak ere bai... eta goizaldeko 04:00etatik aurrera punkiak.

Horrenbeste urte eta gero, plazak betetzen eta gazteak dantzan ipintzen jarraitzen duzue. Zein da sekretua?

Ez dago sekreturik, euren gustoko abestiak jotzen ditugu, beste barik. Ez dakit transmisioak edo zeri kusirik izango duen ala ez. Edo, agian, eragina izan dezake benetazkoak garela jotzen dugunean, ez daukagu poserik, garen bezala jotzen dugu. Ez dakit zergatik izango den, auskalo! Baina, plaza beteta eta denak dantzan ikusten ditudan bakoitzean, nere bihotza pozez betetzen da.

Hala ere, argi eta soinu ekipo benetan handiak dituzten orkestrekin alderatuz gero, askok nahiago dute zuek egiten duzuen berbena estiloa...

Guk egiten duguna haiek egiten dutenarekin konparatzerik ez dago. Guk kobratzen dugunarekin ezinezkoa da antzerako ezer egitea. Ez dakit zergatik, baina orain dela 20 urte ere horrela zen, Euskal Herrikan kanpora hemen baino askoz diru gehiago irabazi izan dute beti taldeek, baliteke gure erruagatik izatea, ez dugulako jakin gehiago eskatzen edo. Behin baino gehiagotan esan digute hemendik kanpora gehiago irabazten dela, baina gu pozik gaude horrela, hemen inguruan jotzen eta lotara etxera bueltatzen. Ez gara aberastu, baina ez gara gaizki bizi. Sasoi batean soinu joleren bat, edo gure gurasoek esaten zuten bezala, jazzmanak, nahikoa izaten ziren erromeria egiteko, ez dakit horrek ere eraginik izango ote duen. Edozein modutan ere, hemen ezinezkoa izan da beste toki batzuetan bezain beste irabaztea, hemengo taldeek ez dugu lortu gehiago ordaintzea, edo ez dugu jakin eskatzen.



Eguaztenean ailegatu ziren lehen haurrak Espainiara, "Vacaciones en Paz" programarekin, eta bihar Loiu hartuko dituzte Euskal Herrira datozenak.

Hilabete geroago, bihar ailegatuko dira Oporrak Bakean-eko haurrak

Besoak zabalik hartuko dituzte Saharako kanpamenduetatik datozen haurrak bihar Loiu aireportuan harrera familiarek. Izan ere, pandemiarengatik azken bi urteetan ezin izan da Oporrak Bakean programa gauzatu eta, beraz, pozarren daude aurten berriz ere horretarako aukera dagoelako. Hala ere, programako arduradunek eta familiarek zapo gazi-goxoa daukate, haurrak honezkero hemen beharko luketelako aspaldi, orain hilabete, baina tramiteak beharko luketena baino gehiago luzatu dira oraingoan, eta horretarako arrazoia Espainia eta Marokoko gobernuen arteko azken tirabirek zerikusia dutela uste dute. Eibar-Sahara Elkartek Sanjuanak eta

gero sare sozialetan salatu zuenez, "ekainaren erdialdera adingabe sahararrei behin-behineko bizilekua baimendu zitzaizen, baina ez dira ari ezer egiten dokumentu hori BOEra igotzeko eta horrek ez digu uzten dokumentazioarekin amaitzen, Air Algerie-k haurrak Euskal Herrira eta Espainiako beste probintzietara ekarri ahal izateko. Nor da honen erruduna? Inor ere ez? Nor ari da jasaten? Jada Uda Bakean gozaten egon beharko luketen neska-mutiko sahararrak!".

Elkarteko ordezkariak nabarmendu dutenez, azken bi urteak bereziki gogorak izan dira Tindufeko (Aljeria) kanpamenduetan bizi diren ume sahararrentzat: "Munduko deserturik lehorrenaren erdian

Aurreikusita zegoena baino ia hilabete geroago, azkenean bihar ailegatuko dira Loiu aireportura aurtengo uda familia euskaldunekin pasatuko duten haur sahararrak. Azken asteotan oso urduri egon dira harrera familiarek, hurrek etortzeko Espainiako Gobernuaren baimena izan arren, traba burokratikoengatik, eskatzen dituzten tramiteak behin-betiko amaitzeko aukerarik ez dutelako izan eta, beraz, orain dela egun gutxira arte, ez dute jakin azkenean haurrak etortzeko aukerarik izango zuten ala ez.

bizirautera behartuta, arazo latzak jasan behar izaten dituzte: janari eta ur eskasia, udan 55°-tik gorako tenperaturak, medikuen errebisio falta...". Eta hori gutxi balitz, COVID-19aren pandemia eta gerra gehitu zaizkie bestela ere han ohi-koak diren arazoei.

Oporrak Bakean proiektuko berbetan, pandemiak oso gogor jo du errefuxiatuen esparruetan: "Kanpolaguntzatik bizirauten duen herri batentzat mugak itxita egoteak ondorio larriak dauzka".

Bost haur etorriko dira Eibarrera

Oztopoak oztopo, Oporrak Bakean programari esker bihartik aurrera bost ume izango dute oporrak Eibarren pasatzeko aukera, gure herriko hiru familiarekin. Beraiek moduan, ia 150 hurrek izango dute uda familia euskaldunekin igarotzeko aukera. Espainian, Saharatik etorritako 2.200 haur inguru hartuko dituzte familiarek. Horri esker, basamortuan dauzkaten bizi-baldintza gogorak albo batera lagako dituzte, egun batzuetarako baino ez bada ere.

Amaitu da Eibar KE-ren Areitio kirol hiriko obren lehen fasea

Areitio kirol-hiriko obren lehen fasea, lur-mugimenduei eta nibelazioari dagokiena, aurreikusitako epeen barruan amaitu da. Fase hori amaitu ondoren, zehaztuta eta finkatuta geratu dira aurreikusitako bost eremuak instalatzeko plataformak. Aste honetan, Esparru jatetxe zaharraren eraikina eraisten ari dira eta, horren ordez, egungo eraikuntza-araudira eta instalazioen beharretara egokitzen den beste bat jarriko da. Esparrua eraisten hasi dira eta, ondoren, urbanizazio-lanak egingo dituzte. Hurrengo urratsa ingurua urbanizatzen hastea izango da, kirol-hiria



Mallabiko hirigunearekin lotuko duen espaloi bat eta ibilgailuen zirkulazioa eta instalazioetarako sarbideak antolatuko dituen biri-

bilgune bat eraikiz. 2022a amaitu baino lehen 1., 2. eta 3. eremuetako harmailak eraikitzen hastea aurreikusi da.

Eskozia La Brava Peñen Arteko XIV. edizioa bereganatu zuen

U.D. Logroñes taldearen Resaca Blanquirroja peñak antolatuta, Errioxako hiriburuan jokaturako Peñen Arteko Torneoaren 14. edizioan eibartarrek txapela jantzi

zuten. Eskozia La Brava, gainera, lehen aldiz gailendu zen 2007an sortu eta orain arte urtero jokatu den torneoan. Partidu guztiak zapatuan jokatu ziren, goiz eta arratsalde,

La estrella udal zelaian. Eskozia La Brava 5-3 irabazi zion Sección Pollos-i, 5-4 Ciudad de León taldeari eta 4-3 etxeko Resaca Blanquirrojari, La Kuadrillarekin bina berdintzeaz aparte. Eibartarren artean Aitor Cañaveras eta Alvaro Fernandez izan ziren goleatzaile nagusiak, lau golekin, Ibon Romerok hiru sartu zituen, Yeray Arostegik bi eta banarekin geratu ziren Iker Fernandez, Yeray Martinez eta Iker Cañaveras. Eskozia La Brava txapeldunak 10 punturekin amaitu zuen, 9rekin geratu zen Ciudad de León, 7 lortu zituen La Kuadrillak, Resaca Blanquirrojak 3 eskuratu zituen eta puntu barik geratu zen Sección Pollos.



Hodei Ezpeleta "Bihurri"k Donostiako Urrezko Kopan debutatuko du

Eibarko aizkolaria Euskal Herriko onenen artean dagoela erakutsi zuen aurreko zapatuan ere eta, lan bikaina eginenez, urteko lehiaketa ga-

rarrantzitsuenetakoan parte hartzeko txartela eskuratu zuen. Urrezko Kopa abuztuaren 15ean jokaturako da Donostiako Trinitate plazan eta,

Eibarkoarekin batera, izen handi hauek hartuko dute parte bostekoa osatuz: Mikel Larrañaga, Aitzol Atutxa, Iker Vicente eta Julen Alberdi.

Ttatt gimnasioko Ramon Quina Madrilgo I. Nazioarteko Wushu Stagean izan zen

Hilaren 7tik 10era arte Espainiako hiriburua Europako Wushu modalitatearen gune bihurtu zen bertan egin zen I. Nazioarteko Stagean, Portugal, Italia, Suitza eta Espainiaren parte-hartzearekin. Stage hori Kirol Kontseilu Gorenean egin da eta hainbat modalitateko ehundik

gora atleta bildu ditu. Ramon Quina Ttatt gimnasioko arduraduna ere han izan zen, sanda modalitatea (borroka KO-ren bila) zuzentzen, eta kirol horretako lehen mailako borrokalarien progresioan laguntzen, hemendik aurrerako hitzorduei begira.



Taekwondoko bi gerriko beltz berri

Ekaitz Telleria eta Ganix Guenaga 15 urteko gazte eibartarrek orain hamar urte hasitako bidean urrats garrantzitsua eman zuten aurreko barixakuan, Zallako frontoian taekwondoko gerriko beltza eskuratze-ko azterketa ofizialak gaindituta. Epaimahaiko buru Juan Ferrando maisua, 8. Dana bera, izan zen, eta lagun izan zituen beste maisu bat, Javier Mujika 7. Dana, eta Mario Mujika sabumnim-a eta 6. Dana.



Arima Galduak jugger taldeak udako txapelketa jokatu du Santanderren

Azken asteburuan udako txapelketa jokatu zen Santanderren, 40 graduko tenperaturarekin jokatu ere. Horregatik, partiduak oso gogorak suertatu ziren, beroarengatik,

eta jokalariek batzuk erdi zorabiatuta ibili ziren. Bertan 32 talde izan ziren parte hartzen eta, euren artean, Arima Galduak gure herriko taldeak 28. postuan amaitu zuen.



Eibar-ek 5.900 bazkide baino gehiago ditu

Klubaren historiako kopururik handiena eskuratuta, Eibar KE-k 5.900 abonatuaren muga gainditu du. Denboraldia amaitu zenetik, 254 alta eta 30 baja izan dira guztira; alden batzbesteko adina 27 urtekoa da. Alden erdia baino gehiago infantilak eta gazteak dira. Abonu berri gehienak eibartarrei badagozkie ere, badira Ermua, Elgoibar, Durango eta Berrizekoak ere. Abonuek urtarriletik abendura bitarteko epea hartzen dute.



Udako gauen xarma. Ekhi Belar



Azken egunotan eibartar asko joan da igerilekuetara bainua hartzera. ARTXIBOA

Beroari aurre egiteko aukera onak dira igerilekua eta hondartzak

Azken egunotako beroak argi laga digu zein garrantzitsua den freskatzeko aukerak izatea. Itzalean ere izerditan gauden momentu horretan, Eibarko igerilekua eta Deba eta Mutrikuko hondartzak aproposak dira horretarako.

Pandemiari aurre egiteko neurriak atzean laga arren, dena ez da lehen bezalako Eibarko igerilekuetan, taberna itxita dagoelako. Hori bai, sarreran vending makina bat dago, zerbait erosteko aukera ematen duena.

Igerilekuen alboko eremuan itzala ematen duten hiru elementu arkitektoniko daude; baina, norberak eguzkitakoa eraman nahi baldin badu, lurtean iltzatzeko tramankulu batzuk ematen dituzte sarreran.

Ordutegiari dagokionez, igerilekuak 10:30etik 20:30era egon-

go dira uztailaren 31ra arte, eta abuztuaren 1etik aurrera 10:30etik 20:00etara egongo dira zabalik.

Debako hondartzak

Ez dugu sekreturik kontatuko udan Debako hondartza eibartarrez betetzen dela esaten badugu. Bi hondartza daude, Santiago eta Lapari, eta marea baxu dagoenean batetik bestera joan daiteke errez. Nahi izanez gero, paseatzeko eta panoramika ederraz gozatzeko aukera ematen duen pasealekua dago; eta uretan ondo pasatu nahi badu-

zu, olatuek surfean egiteko aukera ematen dute.

Eibartik Debara joateko, bi tren egoten dira orduro 11:11tik aurrera (11:11an eta 11:51an, adibidez), eta itzultzeko berdin (12:43an eta 13:01ean, adibidez). Autobusean joan nahi izanez gero, orduro pasatzen den Lurraldebusen DB04 linea hartu behar da (10:53 inguruan adibidez) eta ordu erdi inguru irauten du.

Autoan joan nahi izanez gero, toki aurkitzeko zortea izan eta T.A.O. ordaintzeko prestatu.

Mutrikuko hondartzak

Mutrikun zenbait hondartza aurkitu ditzakegu, eta baita igerileku naturalak ere. Debatik oso hurbil dugu, adibidez, Ondarbeltz. Gainera, Deba eta Mutriku arteko zubia konpondu dutenez, orain errazagoa da bertara joatea.

Herrian Mutrikuko hondartza aurkitu dezakegu, kaien ondoan eta hondar finarekin, eta bi igerileku naturalekin. Hirugarren hondartza Burumendi izeneko gunearen ondoan dago eta Flysch Beltzak osatzen duen Zazpi Hondartzetako gunera sartzeko bideetariko bat da. Hondartza txiki hau lasaitasuna gustuko duen jendearentzako oso egokia da.

Saturraran da Mutrikuk eskaintzen duen beste aukera ezagun bat. Gipuzkoako kostaldeko basati-entariako da eta haitzaren atzean hondartza txikiak egiten dira, batez ere itsasbeherarekin. Gune hauek egokiak dira nudismoa egin nahi dutenentzat.

Mutrikura joateko DB04 autobusa hartu behar da, Debara joateko bezala. Autoan joan nahi izanez gero, hirigunean, Jasokundeko Ama Elizaren atzean, lur-azpiko parkinga dago, herrian T.A.O. zerbitzua dago eta baita Saturraranen ere.



Ziurtagiri ez-ofiziala jaso dute Brebeta euskaraz egin zuten ikasleek

Debekatuta egon arren, Brebeta azterketa ofiziala euskaraz idatzi zuten Seaskako ikasleei ziurtagiri ez-ofiziala banatu zien aurreko astean Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak elkartzen dituen Euskal Elkargoko presidenteak. Irakasle, ikasle eta gurasoen txaloen artean jaso zituzten euskaraz zuzendu zituzten azterketen nota “errealak”. Izan ere, desobedientzia ekintza gisara Brebeta azterketa ofiziala euskaraz idatzi zuten Seaskako lau kolegioetako ikasleek oso nota baxua izan zuten frantsesezko zuzenketan. Hori dela eta, irakasle euskaldunek horien kopiak zuzendu zituzten nota “errealak” izateko, eta nota horiek agertzen dira orain dela egun batzuk banatu zituzten ziurtagirietan.



Euskaltzaindiak 431 forma berri gehitu dizkio hiztegiari

Euskaltzaindiaren Hiztegia eguneratu dute eta azken sei hilabeteotan 431 forma berri jaso dituzte. Gehitu diren sarrera eta azpisarreraren artean hauek daude, besteak beste, buruloka, deliberatu, superni, kafe huts, plater zapal, plazebo-efektu...



Ederto ospatu zituzten San Kristobal auzoko jaiak

Asteburu bete-betea izan zuten San Kristobalgo jaietan. Barixaku arratsaldean hasi ziren ospakizunak, “La banda magnética” taldearen kalejirarekin, eta hortik aurrera era guztietako jarduerak egin zituzten auzoan, domekan jaiak agurtzeko ordua ailegatu arte: “Cien duros” eta “Trogloditas” taldeen kontzertuak, sandia-jana, Lambretta motorren igoera, dardo-txapelketa, Dominguez mariatxiaren “callejonada”, herri-afaria, DJ Xantiren musika festa, “Algo de mi” bandaren kontzertua, paella-txapelketa... Bestalde, lehiaketaren sariak banatu ondoren, Sankristobalgo jaietako zozketa egin zuten eta zenbaki saritua 1.134 izan da. Lehen ordezkoa 805 zenbakia izan da eta bigarren ordezkoa, berriz, 546 zenbakia.

Bi argazki-erakusketa martxan

Klub Deportiboko Argazki Taldekoen eskutik, hila-ren amaierara arte klubeko hainbat kideren lanak ikusteko aukera dago Depor eta Portalea tabernetan.





Uda sasoiari irakurtzen gozatzeko gida eskuragarri

Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Liburutegiak uda honetan jolasean eta irakurtzen gozatzeko liburu eta jolas gomendioak bildu dituzte gida batean. Udan seme-alabekin egoteko denbora gehiago izaten denez, irakurketa lantzeko eta euskara indartzeko ere sasoi egokia izaten da, eta zeregin horretan familiei laguntzeko kaleratu dute gida. Interesa izanez gero, Interneten ere eskuratu daiteke gida, liburutegiaren blogean.



Agur ikasturteari gaueko kontzertu arrakastatsuekin

Erritmoz betetako emanaldiarekin agurtu zuen kurtsua Eibarko Musika Bandak barixakuan. Andoni Vázquezek zuzendu zuen kontzertuak bat baino gehiago dantzari ipintzea lortu zuen eta jendeak pozik entzun zituen eskainitako pieza guztiak.

Bideoa Youtuben ikusgai



Merkealdien azokan ere Euskeraz Primeran!

Aste honetan egin den udako merkealdien azokan egon da ...eta kitto! Euskara Elkartearen berriz ere, Euskeraz Primeran! kanpainarekin. Berez, kanpainaren helburua herriko ostalari eta dendarien artean euskararen erabilera handitzea da, baina ekimen honen herritarren artean ere zabaldu nahi da gutxienez lehen berba euskaraz egiteko konpromisoa. Beste batzuetan egindakoaren bidetik, euskara elkartearen mahaira gerturatu direnei joko dibertigarri eta erraz batean parte hartzeko aukera eman zaie eta, gainera, erosketa-poltsa bana oparitu zaie. Horrez gain, gaur eguerdian egin den zozketan sartu dira eta irabazleak Eibar Merkataritza Gune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartela jaso du.

Arrateko bertso afarirako sarrerak tabernetan salgai



Arrate bezperan, irailaren 7an egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako bertso afaria, Tiro Pitxon jate-txean. Aurten ere puntako bersolariak arituko dira nor baino nor, bertsoetan: Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea, berriz, Jon Mikel Mujika izango da. Gaur arte salduko dituzte elkartearen bazkideentzat sarrerak, ...eta kitto!-n (36 eurotan). Eta bihartik aurrera, berriz, Guridi eta Kultu tabernetan eta Tiro Pitxon jatetxean izango da erosteko aukera (38 eurotan).

Jaiak, musika, zinea... udarako mila plan Debarrenean



Udako agenda beteta datorkigu eskualde osoan. Eibarren ez ezik, Debarreneko beste herrietan ekintza ugari egingo dira, asteburu honetan hasi eta abuztuaren amaieraraino. Eskualdea hobeto ezagutzeko eta, era berean, ondo pasatzeko aukera aparta dugu uda honetan.

Hasteko, jaiak izango dira nagusi Debarrenean. **Soraluzen**, gaur, 20:00etan, emango zaio hasiera herriko jaietako egitarauari, eta udaletxetik kanoikada bota ondoren, musika izango dute lagun Polo Opuesto, No Limits eta Demode Quartet taldeen kontzertuekin, Zubi Nagusian eta Plaza Zaharrean, hurrenez hurren.

Biharko, goizetik gauera arteko egitaraua dute prestatuta. 11:00etan salda eta txorizoa banatuko dute Plaza Zaharrean, ordu berean Street Zumba egingo da Zubi Nagusian, 11:30ean Kantujira herrian zehar, ordu berean Elektro Bermuta kiroldegiko terrazan, 13:00etan erraldoien eta buruhandien kalejira, 16:30ean Soraluze Open Air Gune Musik jaialdia kirolguneko terrazan, 18:00etan Patxin eta Potxin pailazoak frontoiko karpan, 20:00etan elektrotxaranga ibiliko da kalean eta gauean, 23:00etatik aurrera, musika izango da nagusi Dinami-

ta, Cronopios eta M&M taldeen kontzertuekin Zubi Nagusian, eta ordu berean Oihan Vega egongo da Plaza Zaharrean.

Domekan, besteak beste, eibar bat izango da protagonista, Ainhoa Arroita jauregik kontzertua eskainiko duelako, 19:00etan, Zubi Nagusian. Ondoren, 19:30ean, Alaia Martin, Saioa Alkaiza, Unai Iturriaga eta Amets Arzallus bertsolariak saioa eskainiko dute.

Asteleheneko egitarauari begiratuta, 12:00etan hasiko den Debarreneko gazta-dastaketa, 16:30ean egingo diren rap kontzertuak, 19:30eko pilota partidak, eta 23:00etako kontzertuak eta dantzaldia azpimarratu daitezke.

Egitarauarekin amaitzeko, martitzenean, 13:00etan apar-festa egingo da frontoiko karpan, 17:00etan zezentxoak egongo dira, 18:30ean Ustekabek kalejira eskainiko du eta 19:00etan zezenak egongo dira Ustekabek girotutako saioan. 23:00ean, azkenik, karaokea eta jolasak egongo dira.



La Oreja de Van Gogh talde donostiarrak kontzertua eskainiko du bihar Ermuan

Santixauak Ermuan

Santixauek, ohikoa denez, 24an egingo dute eztanda, domekan, baina biharkoa egun berezia izango da Ermuan, 23:30ean La Oreja de Van Gogh taldeak kontzertua eskainiko duelako San Pelaio plazan.

24ari begira, 19:00etan jaurtiko da txupinazoa eta ohiko kalejira Irulitxa eta New Tocado musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta. Gero, 22:00etatik 03:00etara, Stormseed, Balmog, Totengott eta Nakkiga taldeek rock jaialdia eskainiko dute Martxoaren 8a plazan. Bitartean, 11:00etatik 04:00etara, Vulkano Show orkestrak dantzaldia eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.

Astelehenean, 12:30ean, herrikirolak egongo dira plazan eta bertan izango dira Ernesto eta Hodei Ezpeleta 'Bihurri' aita- semeak, besteak beste. 20:30ean euskararen aldeko topa-konpromisoa egingo da plazan, 20:00etan hasiko den Larrain dantzaren ondoren. 22:00etatik 03:00 rock jaialdia

egingo da beste behin The Red Army, We Are Apes Hello, Hiru Galduak eta Yawners taldeen eskutik. Plazan, ostera, Maremagnum orkestrak dantzaldia eskainiko du 23:00etatik 04:00etara.

Martitzenean ere egun osoko egitaraua izango dute eta Pasarela orkestrak eskainiko du gaueko dantzaldia. Eguaztenean, azkenik, goizean paella lehiaketa egin eta egun osoko egitarauaz gozatu ondoren, 00:00etan suziriak botako dituzte eta Agur Jaunak abestuko dute plazan.

Abuztuan jai gehiago

Soraluzeko eta Ermuko jaiak ez dira Debabarreneko bakarrak izango. **Deban**, adibidez, abuztuaren 6tik 10era Itziarko kopraixak ospatuko dira, eta 14tik 18ra San Roke jaiak. **Elgoibarren**, hilabete osoan zehar egongo da zerbait: 3an Santumotz eguna, 6an Sallobenteko jaiak, 10ean San Lorentzo eguna, 16an San Roke eguna eta 23tik 28ra San Bartolome jaiak. **Mallabian**

ere jaiak izango da nagusi, 14tik 16ra Andra Mari jaiak ospatuko baitira. Baita **Mendaron** ere, eta aurretik, uztailaren 22tik 26ra, Santa Ana jaiak ospatzen dihardute (Lisker egongo da 24an). **Mutrikun** ere egun hauetan ari dira ospatzen Malen jaiak, 25era arte.

Eta hurrun joan gabe, 6an San Salvador jaiak eta 15ean Andra Mari jaiak ospatuko dira **Eibarren**.

Bestelako ekintzak

Jaiez gozatzeaz gain, bestelako ekintzak egingo dira Debabarrenean. Adibidez, abuztuaren 13an Deba-Reus topaketa egingo da Deban; Elgoibarren (uztailaren 23an, 29an eta 30ean), Ermuan (abuztuaren 1ean, 2an, 3an, 8an, 10ean, 17an, 22an eta 24an), Mutrikun (abuztuaren 3an, 10ean eta 17an) eta Eibarren (abuztuaren 4an, 11an, 18an eta 25ean) aire libreko zinea egongo da; Mutrikun Neomak taldeak joko du abuztuaren 6an; eta abuztuaren 15ean Dolmenen Ibilbidea egingo da Soraluzen.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			7	4		8		
				2	8			4
8				9		5		
	2	5			9		3	
6								2
	1		2			6	9	
		3		1				6
7			9	6				
		4		7	3			

U	E	C	Z	R	P	P	R	E		
U	T	Z	S	S	E	L	U	A		
U	E	Z	Z	T	O	C	U	O		
B	E	R	R	P	I	Z	A	I	C	
C	L	Y	Z	C	I	B	S	B		
P	I	C	I	B	R	R	P	I	Z	P
L	C	S	B	R	C	E	P	A	R	
P	R	C	R	E	C	S	B	A	L	
B	T	R	L	R	I	C	O	S		

soluzioa

S U D O K U

	5					6	8	9
		9		5				
	4	7	9					
9	1				6		3	
			3	5				
6		7					9	2
					8	9	7	
				7		3		
2	7	8						5

soluzioa

U	E	C	Z	R	P	P	R	E		
U	T	Z	S	S	E	L	U	A		
U	E	Z	Z	T	O	C	U	O		
B	E	R	R	P	I	Z	A	I	C	
C	L	Y	Z	C	I	B	S	B		
P	I	C	I	B	R	R	P	I	Z	P
L	C	S	B	R	C	E	P	A	R	
P	R	C	R	E	C	S	B	A	L	
B	T	R	L	R	I	C	O	S		

BURUA ZERTXOBAIT ASTINTZEKO LAU ARIKETA

- 1) Karrikaburu senar-emazteek sei seme-alaba dituzte. Seme bakoitzak arreba bat du. Zenbat lagunek osatzen dute Karrikaburu familia?
- 2) Nire semeak hainbat anai-arreba ditu. Gehiago diot: hainbeste anai, beste hainbeste arreba, kopuru bera. Baina arreba guztien neben kopuruak ahizpena bikoizten du. Zenbat seme-alaba ditut?

- 3) Aita baten adinak bere alabarena lau aldiz biderkatzen du. Hemendik 20 urtera bikoiztu egingo du alabaren adina. Zenbat urte dituzte biekin gaur egun?
- 4) Joxepik eta Imanolek xakean dihardute jokatzeko. Bost partida jokatu badituzte ere, bakoitzak hiru irabazi ditu. Zelan izan daiteke?


1) 12 lagunak osatzen dute Karrikaburu familia: 6 seme-alaba eta 6 arreba.
 2) 3 seme-alaba ditut: 3 seme-alaba eta 3 arreba.
 3) 20 urte dituzte gaur egun: 20 urte eta 40 urte.
 4) 3 partida jokatu dituzte: 3 partida jokatu dituzte.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



4 DIRA DESBERDINTASUNAK: gutxi, baina aurkituko dituzu



L
A
B
I
R
I
N
T
O
A

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **22an:** 20:00
- **23an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00, 20:00
- **25ean:** 20:30

"Mis queridísimos hijos"

Zuzendaria: Alexandra Leclere



2 ARETOA

- **22an:** 20:00
- **23an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00, 20:00
- **25ean:** 20:30

"Entre la vida y la muerte"

Zuzendaria: Giordano Gederlini



ANTZOKIA

- **22an:** 20:00
- **23an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00, 20:00
- **25ean:** 20:30

"Padre no hay más que uno"

Zuzendaria: Santiago Segura



UDAKO ZINEA UNTZAGA

ABUZTUAK 4 EGUENA

- **22:00**

"Little Miss Sunshine"

Zuzendaria: Valerie Faris



EUSKERAZ

Alaba txikia edertasun-lehia keta bateko finalera eramateko prest dagoen familia batek furgonetan bidaiatuko du herrialdean zehar.

ABUZTUAK 11 EGUENA

- **22:00**

"Lur eta Amets"

Zuzendaria: Imanol Zinkunegi



EUSKERAZ


Lurrek eta Ametsen asteburu bat igaroko dute amama magikoarekin gurusoak ezkontza batera doazen bitartean.

ABUZTUAK 18 EGUENA

- **22:00**

"Nomadland"

Zuzendaria: Chloé Zhao



Dena galdu duen emakume batek mendebalderantz bidaiatzea erabaki du, karabana batean nomada bezala.

ABUZTUAK 25 EGUENA

- **22:00**

"Descarrilados"

Zuzendaria: Fernando G.-Ruiz



Pepo, Roge eta Costak orain dela 20 urte hasi eta Juan Luis lagunarekin amaitu ezin izan zuten interrail-a jarraitu beharko dute.

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MADDI**, potxoli! Hillaren 25ian 7 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu hain zorionsu eta maitagarri! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **KOLDO**, eguaztenian 7 urte beteko dozuz-eta. Ondo-ondo ospatu. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iker-en partez.



Zorionak, **MARKEL**, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **KOLDO!!** Domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **ITXASO**, politta. Abuztuaren 3an 8 urte beteko dozuz-eta. Gozatu ondo merezittako oporrak! Musu haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, **MARI FRAN**, gaur zure urtebetetze eguna dozu-eta. Asko maite zaittugu. Etxekuen eta, batez be, Mateoren partez.



Zorionak, **IZAR** eta **MAITE**, hillaren 20xan 4 urte bete dozuez-eta. Musu mordua etxekuen partez!



Zorionak, **DANEL** (abuztuaren 6xan 4 urte egingo dozuz), eta **MARA** (uztaillaren 18xan urtetxua bete zenduan). Musu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, **ANE** eta **LUCIA**, sorgintxuok, heltzear dagan zuen 8. eta 6. urtebetetzian! Oso ondo pasa, printzesak! Patxo erraldoi bana!

ABUZTUAN GOIZEZ ZABALIK
08:30-13:30
MUGIKA
Harategia - Urdaltgia
Carniceria - Charcuteria

Baserriko Haragia

Urkizu, 18 943120194

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

PUBLI RESA
objeto publicitarios

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behes

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Errioxako Fuenmayor-en, Logroñotik 5 minutura. 3 logela. Egoera onean eta zentrikoa. 60.000 euro. 657779811..

1.2. Errentan

- Logela alokatuko nioko gazte arduratsua bati Donostiako Gros auzoan. Irailetik eainera arte. 639775253.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.

- Zumaian etxebizitza alokatzen da hamabostaldika uztaile, abuztu eta irailean. 2 logela ditu eta ondo kokatua dago. 616382416.
- Unibertsitatean ikasten diharduen bikoteak (lan finkoarekin) pisua hartuko luke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Erreferentziak. 637918620..

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. 664888779.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. 632419944.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketako edo janaria egiteko. Esperientzia. 602872909.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta etxe-garbiketako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxe-garbiketako egiteko. 624869718.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketako egiteko eta supermerkatuan lan egiteko. 673831401 / 666843393.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Erreferentziak. 612461563.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketako egiteko. 622023451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 631750397.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Orduka. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketako egiteko eta janaria prestatzeko. 14 urteko esperientzia. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (osasun tituluarekin) eta garbiketako egiteko. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Profesional tituluarekin. 633946701.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita gauze ere) edo umeak zaintzeko eta garbiketako egiteko. 661079635.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeko garbiketako egiteko. Orduka. 667060292.

4.2. Langile bila

- Higienista bukodentala behar da hortz klinika batean, iraillean asteko. Bidali curriculum: hortzklinika.06@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum: Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

- Pertsona euskalduna behar da irailetik aurrera goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
- Elgoibarko enpresa batek jendaurrerako eta biltegirako pertsona behar du. Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eta gidabaimena izatea baloratuko dira. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
- Kirol teknikaria behar da. Beharrezkoa: euskera jakitea eta aqubike, aquafitness eta igeriketa ikastaroak emateko ikasketak izatea. 688610620. eibarigerixan@gmail.com
- Administralari profileko pertsona behar dute Eibarko hortz klinika bateko kide izateko. Sektorean esperientzia izatea eta euskera jakitea baloratuko dira. Bidali curriculum: dentalweb@hotmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitateko prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Batxilergo 1-eko liburuak erosiko nituzke. 688679682. Amaia.
- Camper furgonetari atxikitzen den geladun kanpin-denda salgai. 70 euro. 695708100.
- Ponyak saltzen dira. 679824081.



HELDU!

Ekintzailletza berritzailea
Emprendizaje innovador

EIBARKO EKINTZAILLETZA-PROGRAMA



ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO FORMULA

TUTORETZA



AHOLKULARITZA



FORMAZIOA

➔ IZENA EMAN IRAILAREN 11 BAINO LEHEN:

🌐 heldueibar.debegesa.eus

✉ ekintzaile@debegesa.eus



IRAILAK 7 EGUAZTENA

TIRO PITXOI JATETXEA

21:00

Arrateko Bertso Afaria



ALAIA
MARTIN



AMETS
ARZALLUS

GAI-JARTZAILEA JON MIKEL MUJIKA



SUSTRAI
COLINA



MAIALEN
LUJANBIO

sarrerak

BAZKIDEENTZAT
OROKORREAN

UZTAILAK 11/22
UZTAILAK 23-ik

...ETA KITTOI-n (36€)
KULTU:GURIDI/TIRO PITXON (38€)



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikari Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikari Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Okulsiotan Graduondoa
Anibal Alonso Doktorea.


Asteleheneretik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com